



Denak gelan eserita daudenean, haur bakoitzak lasai-lasai bere burua aurkez dezala. Horretarako, eman bakoitzari kartoi mehez egindako kareta bat, bertan nahi dutena marrazteko (adibidez, baloi bat, panpina bat, liburu bat, izozki bat... Gogoko duten edozer).

Denek marrazkia amaitu dutenean, bakoitzak bere izena esan dezala, eta azal dezala karetan zer marraztu duen... Horrela, banan-banan, beren burua aurkezten joango dira. Eta, azkenik, katekistak aurkeztuko du bere burua.

Karetari makila itsatsi, eta etxera eramango dute.


Jesus ume bati eskua emanda agertzen den marrazkiaren orriak dauzkazue. Eman ume bakoitzari orri bat, margotzeko, eta jar dezatela bertan beren izena. Orri horiek kartoi mehean itsatsi, eta kartoi mehea hormako kortxoan ipini.

Liburuak banatu. Bakoitzak bere liburuan bere izena jar dezala.

Denborarik gelditzen bazaizue, Araun jokora jolas zaitezket, edo bururatzen zaizuen beste edozertara. Talde-jolasa izan dadila, hori bai.







ARAUEN JOKOA

GAUZA BATZUK EGIN DITZAKEZUE EGUNEROKO ELKARBIZITZEAN
ETA BESTE BATZUK EZ.

ARAUAK EZAGUTZEN AL DITUZU?

★ Joka ezazu zure kidearekin "arauen jokoa"
Fitxa bat eta dado bat behar dituzu jokalari bakoitzeko.

JOKATZEKO ARGIBIDEAK

- Tira dado bat eta aurreratu markatzen dituen hainbat
- Margo ezazu zirkuluetan, orlegiz egin daitekeenean eta gorritz egin ez daitekeenean
- Huts egiten baduzu, atzeratu bi lauki
- Patiora lehen iristen denak irabazten du.

